

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko urtarrilak 17 · 1339 zenbakia



PENSIO DUINEN ALDEKO 7 URTEKO BORROKA

La Salle
Matrikula epea:
Otsailaren 3tik 14ra

Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
eta DBH



lasalleibar.eus
943202133 | 943121698

Informazioa eta zuzeneko bisitak



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Toribito Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
943 201 851

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



BISTA EDER

Hortz Klinika - Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.
Berriak zu hobeto pautzeko.

**INPLANTOLOGIA &
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel. 943 790 082 info@bistaeder.es

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 16-1.º c/tx. Eibar
943 20 72 17 - 680 42 28 06
amaia@amaiaodontologia.com

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

108 koloretan ilia

- INDIATERAPIA
- KIBRE LESIOAK
- Puntzio arazo ZELULOSINAK
- K-terapia + BIOPROZIOAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ABUZAGUSTA, 20
T.L.F.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Ginekologia



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tlnoa, 943 20 65 52
www.clinicairazabal.com

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Urtarrilaren 15ean zazpi urte bete dira Euskal Herriko pensionisten mugimendua pensio duinen alde laurogei bat herritako plazetan astelehenero elkarretaratzten hasi zela, eta aste honetan ere hala egin zuten Eibarren, ehunik gora pensionista Untzagan elkartu zituen kontzentrazioan.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia eta

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakziwoa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Reparazek hala eskatuta, kontzertua bere horretan eman zuten, ETB2n eta euskaraz. ETBren zuzeneko emanaldiaren arrakasta eztabaida ezina da. Euskal Autonomia Erkidegoan, Mitoaroka %10,7ko ikusle kuota lortu zuen -euskaldunen artean, %17,6koa-; eta Nafarroan, %14,4ko kuota -euskaldunen artean, %56koa-. Audentzia metatua 275.000 lagunena izan zen, hau da, herritar horiek guztiak ikusi zuten uneren batean euskarazko kontzertua ETB2 katean.

URTZI URKIZU, kazetaria

Zetak taldearen kontzertuaren harira, logikoa da gaztelaniazko kateari audentzia handiko euskarazko produktu bat oparitzea? Zein da helburua, euskaldunak ETB2ra eramatea edo erdaldunak ETB1era? Euskaraz ez dakien ikusle zetak-zaleak igual ikusiko zituen kontzertua euskarazkoan. Segi dezagun Zetak-ekin gozatzen.

MARTXELO OTAMENDI, kazetaria

1965ean Amerikako konpainia bateko zuzendariak, batz beste, berak ordaintzen zuen soldata bider 20 irabazten zuen; orain, soldata hori bider 220 gehiago. Ondasunetan oraindik argiago ikusten da eman den bilakaera: horrela, munduko populazioaren aberatsen den %1ak geratzen denaren populazioaren %95ak baino gehiago du. Itzelagoa izan daitekeena: munduan badira 26 lagun gizakiko erdi txiroena osatzen duten 4.000 milioi lagunek baino gehiago dutenak.

MARTIN CAPARROS, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PAZIENTZIA → Eroapena, egonarria. “Lizentzia ez; peskan bihar dana pazientzia dok”.

PE(G)ORA → Ataria, portala. “Bazkalostietan, Ertzilleneko pegoran, pelotan egitten genduan, biharreko ordurainok”.

1961

Ohorezko damak Danborradako karrozan

Eibarko Danborrada sanjuane-
tan egiten bada ere, ez da beti
hala izan, lehenago San Andres
egunaren bueltan izaten zen
eta. Karrozan ikusten dituzuen
kantinerak eta damak Alpe-
rrak elkartekoek aukeratzen
zizuten.
PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 19
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ASTELEHENA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 22
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 23
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 24
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Cecilia Moreno Martin.**
95 urte. 2025-01-08.
- **Teodoro Gurrutxaga Ansoła.**
102 urte. 2025-01-09.
- **Cristina Ruiz Riveras.**
82 urte. 2025-01-09.
- **Maria Angeles Zallegu Curpe.**
109 urte. 2025-01-09.
- **Aurora Arana Viloria.**
87 urte. 2025-01-11.
- **Joseba Zubiria Biain.**
54 urte. 2025-01-12.
- **Jose Luis Aranzeta Otalora.**
73 urte. 2025-01-14.
- **Pedro Arranz Andres.**
90 urte. 2025-01-14.

Ia ehun lagun batu zituen Auzokoak elkartearen Errege osteko bazkariak

Ondo baino hobeto pasatu zuten zapatuan Gureak lantegiko behargin, monitore eta lagunek, Urkizu inguruko elkarte gastronomikoek (Urkusu-Gain, Erdi Bana, Jaiki, Dorrepe, Edozer, Denon Sahatsa eta Bekuak) osatzen duten Auzokoak elkarteak antolatutako bazkarian. 43. edizioa bete duen ekitaldia Erdi Bana eta Urkusu Gain elkarteetan egin zuten, parte hartu zuten 90 bat lagunak elkarte bakarrean ez direlako sartzen. Zazpi elkarteetako boluntarioak aritu ziren lanean, sukaldean eta mahaiak zerbitzen. Bazkariaz gain, dantzaldia ere egon zen, Juan Luis Agirre DJarekin, eta 30 opari-kutxatila baino gehiagoren zozketa egin zuten, laguntzaileen dohaintzari esker.

ARGAZKIAK: JOSU MENDICUTE.





Eibar memoria toki izendatuko du Espainiako Gobernuak

Aurtengo azaroan Francisco Franco diktadorearen heriotzaren 50. urteurrena beteko da eta, horren harira, memoria demokratikoa sustatzeko asmoa adierazi du Espainiako Gobernuak. Horretarako, demokraziaren garapenean esangura berezia izan duten memoria tokiak goratzea da asmoa, aparteko garrantzia izan duten leku eta gertaerak gogora ekartzeko. Zentzu horretan, jakinarazi du zein toki eta gertaera gehituko dituzten orain zerrenda horretara, eta Eibar dago tartean, memoria toki bihurtuko delarik.

Espainiako Bigarren Errepublikako beste inon baino lehenago, hemen aldarrikatu zelako ekarriko dute gogora Eibar. Frankismoaren aurrekoa da gertaera hori, baina berebiziko esanahia izan zuen demokraziaren garapenean. eta horregatik izango dute kontutan. Eibarrez gain, Gasteiz, Mutrikuo Saturraran hondartza eta Iruñerriko Ezkaba mendia ere memoria toki izendatuko dituzte.

CNT-ren Bakunin 1. Batailoian aritu zen Manuel Oruetari buruzko informazio eske

CNT Gipuzkoako *Borondate Ona/ La Buena Voluntad* memoria historikoaren taldetik gurekin harremanetan ipini dira, beraien ikerketa-lanerako laguntza eske. CNT sindikatuaren Bakunin Batailoiko eibartarrazen Manuel Orueta Azcarateren senideen, edo hari buruzko informazioa duen norbaiten bila dabilta. Aipatutako batailoio edo milizia hori, beste askorekin batera, Espainiako Gerra Zibilean bando errepublikarraren alde borrokatu zen Euzko Gudarostea osatu zutene-

tako bat izan zen, eta Bilboko La Casillan zegoen kokatuta. Ikertzaileek artxibo batean aurkitu duten fitxaren arabera, eibartar honek 29 urte zituen CNT-ren miliziekin bat egiteko izena eman zuenean (60.208 fitxa zenbakia), 1. Batailoian, Armaginen konpainian. Ezkonduta zegoen eta Dos de Mayo kalean bizi zen. Norbaitek informaziorik izanez gero, oroimena@gipuzkoa.cnt.es helbidera idatzi dezake, edo gure astekarira jo (erredakzioa@etakitto.eus / 943 206776).



Eibarrek Alcalá Zamora presidenteari oparitutako pistola berreskuratu dute

80 urte baino gehiago desagertuta egon den arma historikoa berreskuratu dute, Guardia Zibilak eta Frantziako Gendarmariak elkarrekin egindako ikerketa luzeari esker. Balio historiko handia duen pistola Niceto Alcalá Zamora Bigarren Errepublikako presidenteari oparitu zion Eibarko Emakumezkoen Talde Sozialistak, 1932an Eibarrera bisitan etorri zenean. Hala ere, XX. mendeko 40. hamarkadaz

geroztik desagertuta zegoen. 1931ko STAR D modeloko pistola da, guztiz damaskinatua, eta bertan “Al primer ciudadano de la República. El grupo femenino de la agrupación republicana de Eibar” esaldia irakurri daiteke. Luciana Larreategik egin zuen, Jazinto Olaberren taileurrean eta, orduko kronikek diotenez, bere ezkontz-bidaia atzeratu egin behar izan zuen egileak lana amaitzeko.



Bi sute piztu dira herriko bi toki ezberdinetan, ordu gutxiko tartearekin

Birritan, ia jarraian joan behar izan dira suhiltzaileak herriko bi toki ezberdinetan piztutako suak amatatzera. Gainera, bi kasuetan, etxe barruan harrapatuta zeudenak atera behar izan dituzte. Martitzen eguerdian piztu zen lehen sutea, Errekatxu Berriko etxeetako batean, eta balkoian laguntza eske zeuden bi emakume eta hirugarren pertsona bat erreskatatu behar izan zituzten larrialdi zerbitzuek. Men-

daroko ospitalera eraman zituzten, kea arnasteagatik. Eta bigarren sutea eguazten goizaldean sortu zen, Amañan, egurrezko egitura duen bi solairuko eraikin batean, koltxoi batek sua hartu zuenean. Bi pertsona zauritu ziren, horietako bat erai-kinetik ateratzeko leiho bat hautsi zuenean egindako ebakiengatik, eta bestea hanka batean erredurak zituelako. Biak eraman zituzten Mendaroko ospitalera.

Iruñean egingo den "Aroztegia gelditu!" manifestaziora joateko autobusa

Baztanen dagoen Lekarozko herriari 20 urte daramatza espekulazioaren kontrako borrokan. Aroztegiako Elkartasun Komitetik salatu dutenez, "228 familiabakarreko etxebizitza, 4 izarreko luxuzko hotela, eta golf zelaia egin nahi dituzte, herritarren borondatearen kontra". Baimen guztiak izan barik, 2021ean obrak abiatu zituzten, eta horren kontrako kanpaldia egin

zen: "Kanpaldian parte hartu zuten zazpi lagunak otsailean epaituko dituzte, eta, orotara, 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euroko isuna eskatu diete". Otsailaren 1ean manifestazioa egingo da Iruñean, eta Debabarrenetik (Eibar, Elgoibar, Soraluze eta Debatik) bertara joateko autobusa antolatzen ari dira. Datorren astean emango dute informazio zehatzagoa.

Urtarrilaren 25ean gerra eta faxismoaren kontra mobilizatzeko deia

Gazte Koordinadora Sozialistaren (GKS) arabera, faxismoa geroz eta hedatuago dago Euskal Herrian, eta horri aurre egiteko mobilizatzeraz deitu nahi dituzte herritarrak: "Eibarren eta inguruko hainbat herritan pegatina faxistak azaltzeaz gain, Irungo Lakaxita Gaztetxea eta Zornotzako Matrailu Gaztetxea erasotu dituzte, pintada faxisten bitartez. Bestalde, azken hilabeteetan eraso arrazista askoren berri izan dugu Euskal Herrian. Gauzak horrela, gerraren eta faxismoaren aurka antolatzea besterik ez zaigu geratzen". Ildo horretan, manifestazioak deitu dituzte urtarrilaren 25erako, Bilbon eta Iruñean: "Debabarreneko GKS-tik ere, lanean gabilta. Eibarren aurkezpena, komiteak eta hitzaldia antolatu ditugu. Eta eskualdetik mobilizaziora joateko autobusa ere egongo da. Eibarren, San Juan kaletik irtengo da, 16:20ean. Tiketak Guridi tabernan erosi daitezke. Manifestaziorako gonbita egiten dugu, ezinbestekoa baita gazte langileok gerra eta faxismoaren aurka lehen leerroan egotea".





31 urtez Elgetako alkate izan zen Patxi Basauri omenduko dute

Elgetako Uri Buru Batzarretik jakinarazi digutenez, urrian zendu zen Patxi Basauri Elgetako alkate ohiaren omenezko ekitaldi irekia antolatu dute hilaren 24rako (barriakua): “Omenaldia arratsaldeko 7etan hasiko da, udaletxeko lehenengo solairuko batzar aretoan. Elgetarrak bereziki eta inguruko bailaretako herritarrak oro har gonbidatu nahi ditugu bertara. Izan ere, jakina da Basaurik alkatetza garaian eta gerora ere gertuko herriekin izan zuen harreman estua. EAJ-PNVren ekimenez eta modu herrikoian prestatu dugun ekitaldiak herriko hainbat pertsona eta eragileren parte-hartzea ere edukiko du”.



Jaso dute Eskozia la Brava k zozketatutako otarra

Eskozia la Brava eibarzaleen peñakoe k dagoeneko banatu dute Gabonak bueltan zozketatu zuten otarra. Zenbaki saritua 2.502 izan da, eta jabeek pozarren eraman zuten saria etxera. Zorionak!

EH Bilduk kontrako botoa emango dio gobernu-taldearen aurrekontu proposamenari

Gaur goizean egin dute 2025erako Udal Aurrekontua onartzeko Osoko Bilkura, Udalbatza aretoan. Ezohiko bilkura izan da, gai nagusi batekin: 2025. ekitaldirako Aurrekontu Orokorra eta Eranskinak onartzeko proposamena. Horrekin batera, Ana Telleria Echeverria PSE-EE udal taldeko kideak zinegotzi karguari uko egin izanaren berri ere eman dute. Albiste hau idazterakoan Udalbatza egin barik egon arren, Eibarko EH Bilduk bere boto-intentzioaren berri eman digu aurretik eta, helarazi digun idatzian diotenez, PSE-EE eta EAJ alderdiek osatzen duten udaleko gobernu-taldeak “prozesu osoan” erakutsi duen “borondate falta” da horretarako arrazoia.

Udal Gobernu Taldeak 2025. urterako aurkeztutako aurrekontu proposamena 55,7 milioi eurokoa da, eta Gabonen aurretik helarazi zien oposizioeko taldeei, irakurri eta, nahi izanez gero, zuzenketak egiteko. Arantza Mata EH Bilduko bozeramailearen berbetan, “EH

Bilduk 28 zuzenketa aurkeztu ditu, atal ezberdinetan sailkatuta, eta 1,2 milioi euro baino gehixeagotan baloratuta. Lehenik eta behin, uste dugu egoera bereziki larria dela guretzat berebiziko garrantzia duten lau gaitan, eta aurrekontuetan ez dugula ezinbesteko gisa islatzen: etxebizitza, hezkuntza, zaintza eta sozio-ekonomia eta industria. Hori dela eta, aurrekontuetatik gai hauei lehenbailehen erantzuten hasi behar dela uste dugu, eta ondorioz, batez ere lau multzo hauetan oinarritutako zuzenketak proposatu ditugu, baita kultura eta euskara eta espazio publikoari buruzkoak ere”. Abenduaren lehen egunetan egin zuten agerraldian esan zuten bezala, ahalik eta adostasunik zabalena lortzea litzateke egokiena Bildurentzat, eibartar guztien mesedetan. Hala ere, PSE-EE eta EAJ udal taldeek elkarrekin agintzeko daukaten hitzarmenak bozkatu beharreko gaitan gehiengo izatea ziurtatzen die, beste inoren babes barik ere.

“Jaiotzen garen momentutik bakardadean kokatzen gaituzten egoerak bizi ditugu”

JUAN SANCHEZ VALLEJO • Mediku psikiatra eta idazlea



Psikiatra jubilatua da Juan Sanchez Vallejo, medikuntza orokorrean ere urteetan jardundakoa, eta azken urteotan idazle lanetan ikusi dugu. Hainbat liburu kaleratu ditu, baina ez du albo batera laga bere ogibidearen esentzia, gizartean gertatzen diren egoeren eta arazoengatik inguruan idatzi baitu. Oraingoan, ‘Soledad y soledades’ liburuan, bakardadearen inguruko hausnarketa egin du.

Sarritan entzun dugun kontzeptua da bakardadea, baina Sanchez Vallejo erakusten duen moduan, gutxi hausnartu dugu horren inguruan eta, are gehiago, gutxi dakigu bakardadeari buruz. Berdina al da bakardadea eta bakarrik egotea? Zergatik sentitu gaitzke bakarrik mundu hiperkonektatu honetan? Iraganeko poeten berbak hartuta eta teknologia berriei so eginez, idazle eibartarrak gogoeta egin du bakardadeari buruzko entsegu honetan.

Zer da bakardadea?

Liburuan aipatzen dudana bezala, bi adiera dituen kontzeptua da. Batetik, bakardadea bakarrik egotea da, hau da, fisikoki edo sozialki bakarrik egotea. Adibidez, etxean bakarrik bizi den jendea (gero eta jende gehiago bizi da bakarrik) edo isolatzea nahiago duten pertsonak (liburuan aipatzen ditudan poetak bezala). Hori da bakardade hitzaren interpretazio zuzenekoena. Beste gauza bat da emozionalki oso bakarrik sentitzea, eta hain zuzen ere hori lantzen dut liburuan batez ere. Bakarrik sentitzen den pertsona, gehienetan, abandonatuta dago eta, gainera, egoera emozional tristea eta depresiboa du, ez maitatua eta

ez preziatua sentitzen delako. Hori bakardade tristea da, bakardade mingarriena, eta osasunari kalte gehien egiten diona, buru-osasunari batez ere. Batzuetan bakardade hitza gaizki erabiltzen dela pentsatzen dut. Askok zera diote: “Nik badakit bakarrik egotea zer den”, eta abar. Arinegi erabiltzen dugu sarritan eta gauza potoloa da.

Batzuek bakardadea bilatu egiten dute, baina liburuan esaten duzun bezala, beste batzuetan bat-batean iristen da, nahi ez duzunean. Nola eragiten du kasu horietan?

Bat-bateko bakardadea egoera jakin batzuetan gertatu ohi da. Hau da, bakarrik egotean eta, gainera, bakarrik sentitzean. Adibidez, alarguntzean, nota txarreatatik eskolatik botatzen zaituztenean... Dena dela, bat-bateko bakardade guztiak ez dira txarrak. Adibidez, bizi osoan zehar konpainia txar batekin bizi izan bazara, pertsona horrek alde egiten badu edo hiltzen bada (adi, ez dut esaten hiltzeagatik poztuko zarenik), agian bakarrik egoteko gogoia duzu edo, behintzat, konpainia hori lagatzeko. Orduan, bakardade hori atseginez hartuko duzu.

Liburuan nola landu duzu bakardadearen gaia? Hau da, nolako kontakizuna egin duzu?



Irakurleari pentsarazi egiten dioten liburuak idazten ditu Juan Sanchez Vallejos. EKHI BELAR

Poesia irakurle amorratua naiz. Poesia klasikoaren barruan, ehuneko handi batek (Quevedok, Lope de Vegak, Zorrillak, Teresa de Jesusek...) bakardadea goraiatu egiten du. Horregatik, liburuaren hasieran hainbat kontakizun poetiko txertatu ditut, autore hauentzat bakardadea zein ona zen ezagutarazteko. Beste poeta batzuek, ordea, tristetu egiten dira bakardadeari buruz berbetan (adibidez, Gabriel Zelaia, nire lagun handia). Bakardadea gustoko zuten poetek onartu eta bilatu egiten zuten bakardade egoera hori, sasoi horretan bi pertsona klase besterik ez zegoelako: onak eta txarrak. Jakintsuak, erregeak, aberatsak eta horrelakoak onak ziren; eta beste guztiak, herri xumea, txarrak. Beraz, pertsona kulture hauek bakartzea erabakitzen zuten euren meritua izango balitz bezala, bakartzea merezi zutelakoan.

Iraganera jo duzu adibide hauek jartzeko, baina gaur egungo egoerak ere aztertu dituzu. Nolako egoerak dira? Nola bizi dugu bakardadea gaur egun?

Gaur egun, konpainia eta komunikazio kontzeptuak nahastu egiten dira. Hiperkomunikazioa dago gaur egun. Mugikorrek, Internetek, adimen artifizialak eta

“Gaur egun gainkomunikazioa dago, baina benetako komunikazioa, arlo emozionalari eta afektibitateari dagokiona, urria da”

horrelakoek guztiz komunikatuta gaituzte. Hainbestekoa da komunikazioa, gainkomunikazioa dagoela, baina benetako komunikazioa, komunikazio metodo berrietatik ez datorrena, hau da, arlo emozionalari eta afektibitateari dagokiona, urria da. Gizartearen herena baino gehiago mugikorraren esklabu da. Uneoro komunikatzen ari den jendea da, baina gero kalean edo etxean inork ez die jaramonik ere egiten. Edozeinen bizitzaren inguruko informazioa dute, etengabe ari dira komunikatzen, baina maitasunaren inguruan ez dute heldutasunik. Liburuaren zati batean alargun geratu diren pertsona nagusien gaia lantzen dut eta,

ordenagailuak, bideo-jokoak...) esklabu diren 12 eta 22 urte artekoen gaia. Euretako ehuneko esanguratsu batek (%25 inguruk uste dut, buruz nabil orain) deprimituta amaitzen du. Patologikoki deprimituta, tratamendu psikiatriko edo psikologikoaren beharra dutelarik. Izan ere, autobakardadearengatik deprimituta amaitzen duten gazteen laurdenak bere buruaz beste egiten du.

Liburuan aholkurik ematen duzu bilatu gabeko bakardade horri aurre egiteko?

Modu zuzenean aholkuak ematea ez zait gustatzen. Psikiatra bezala ere inoiz ez zait gustatu izan aholkuak ematekoa. Nahiago izan dut pertsonak entzun eta entzundakoa modu ordenatu eta arrazionalen itzultzea. Jendeak adimena erabiltzea bilatzen dut, denok dugulako adimena. Beste kontu bat da adimen hori erabiltzen ez jakitea.

Liburua irakurtze hutsak, gutxienez, pentsatzen edo hausnartzen lagundu dezake.

Bai, hori zoragarria da, baina jendeari kostatu egiten zaio. Irakurtzeak pentsarazi egiten dizu eta pantaila baten aurrean egotea baino politagoa da.

Alargunak eta gazteak aipatu dituzu. Bakardadeak edonori eragiten dio?

Mundu guztia egon daiteke bakarrik bere bizitzan zehar momenturen batean. Modu ezberdinetan gertatu daiteke eta sentimendu ezberdinak bizi daitezke (bakarrik gustora ere egon gaitetzke). Arazoa bakardade depresiboak direnean dago, horrelako ideiak dituzunean: tontoa zarela, inork maite ez zaituelako zaudela bakarrik, baztertu egin zaituztela, kulpa zeure buruari egoztea...

Orain jubilatuta zaude, baina aipatu duzun azken egoera horretatik irtezeko, laguntza jasotzea beharrezkoa da?

Bai, noski. Edozein laguntza da ona: lan arloko laguntza, laguntza intelektuala, afektiboa, sexuala... Noski, laguntza hori onartu egin behar da.

Zerk eraman zaitu gogoeta hauek egitera?

Nire bizitzak. Bi urte eta erdi nituenean ama galdu



“Bi urte eta erdi nituenean ama galdu nuen. Sasoi horretan ez nuen bakardadea ulertu, baina sentitu nuen”

nuen. Sasoi horretan ez nuen bakardadea ulertu, baina sentitu nuen. Horrelakoetan bakartzera jotzen duzu, negar asko egiten duzu (arrazoia ondo jakin gabe)... Nire kasuan bezala, laguntzarekin aurrera egiten duzu, baina jaiotzen garen momentutik bakardadean kokatzen gaituzten egoerak bizi ditugu. Nagusitan, badago psikiatreek sendatzen saiatzen garen buru-estatus bat, gaixotasunak eragiten dituelako, eta hori autoestima da. Psikiatreek kontsultan jaso ditugun pazienteen %70 ideia existentzialak ordenatzea behar duen jendea da (ekimen afektiboa, intelektualak, kulturalak...). beste batean, pantailen (mugikorrek,

Pentsioak hobetzeko zazpi urteko borroka

Eguaztenean, urtarrilaren 15ean bete dira zazpi urte Euskal Herriko pentsionisten mugimendua pentsio duinen alde larogei bat herritako plazetan astelehenero elkarretaraten hasi zela, eta aste honetan ere hala egin dute Eibarren, ehundik gora pentsionista Untzagan elkartu zituen kontzentrazioan. Zazpigarren urteurrenaren harira, biharko eskualde mailako manifestazioa deitu dute, 12:00etan Untzagatik hasita. Ondoren Errebal Plazia eraikinean herri-bazkaria egingo dute.

Zazpigarren urteurrenaren harira, biharko hainbat ekimen prestatu dituzte Eibarko Pentsionista Taldekoek: “Hasteko, eguerdiko 12:00etan, Eibarko Untzaga plazatik eskualde mailako manifestazioan abiatuko gara. Eta, manifestazioaren ondoren, nahi duenarentzat, Errebal Plazia eraikinean herri-bazkaria egingo dugu”. Bazkarirako tiketak Guridi tabernan eros daitezke, 15 eurotan.

Pentsionistek eskualdeko herritar guztiak deitu dituzte biharko manifestaziora: “Eibarko Herriari eta, bereziki, pentsionisten kolektiboari, dei egiten diogu parte har dezala bai manifestazioan bai herri bazkarian”. Eta, horrekin batera, Gasteizen, Legebiltzarrean iazko irailean aurkeztu zuten Herri Ekimen Legegilearen (HEL) aldeko sinadurak astelehenean batzen hasiko direla jakinarazi dute, bertan eztabaidatu eta bozkatu deza-



ten 10.000 sinadura aurkezteko eskatu diete eta. Ekimen horrek aurrera egitea benetan garrantzitsua dela nabarmendu dute beste behin, eta herritar guztiak animatu nahi dituzte beraien sinadurarekin babestera. Gizarte osoaren babesa eskatu dute, pentsioen auziak gizarte osoari, tartean gazteei, eragiten dietela gogora ekarrita.

Eibarko Pentsionista Taldeko Emilio Aiastuiren berbetan, “zazpi urte daramatzagu kalean, denetarik hartzen: bero, hotz, euria, eguzkia... Zazpi urte hauek oso garrantzitsuak izan dira, eta garbi dago guk plazetan jarraituko dugula gure helburua lortu arte. Eta une honetan helburua da pentsioa gutxienez, Nafarroan lortu duten bezala, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren parekoa izatea. Horretarako sartu dugu Gasteizko gobernuan Herri Ekimen Legegilea, hori onartuta dago eztabaidarako, baina horretarako



1.080 euroko gutxieneko pentsioak urteetan eskatzen aritu eta gero, orain helburua beste bat da: Nafarroan bezala, osagarri baten bidez pentsio guztiak gutxienez 1.034 eurokoak izatea bermatuko duen akordioa. SILBIA

bete behar dugun baldintzetako bat 10.000 sinadura biltzea da. Herri batzuetan hasi dira, eta gu astelehenean hasiko gara, asteroko elkarretaratzean bertan”.

Argi daukate azken urte hauetan lortu dituzten hobekuntzak borro-kari zor dizkietela: “Madrilgo gobernuak ezarri eta hiru urte iraun zuen 0,25eko pentsioen igoera ezabatzea lortu genuen. Jasangarritasun faktorea bitan atzeraraztea, eta azkenean bertan behera laga-

tzea erdietsi genuen. Eta 2021eko irailean pentsioen igoera KPIaren araberakoa izatea lortu genuen. Azken urteotan pentsioek murrizketa berririk ez dute jasan, nahiz eta, egiari zor, ez dugun berreskuratu momentuan pentsioek galdutako eros ahalmena”.

EAE n 155.000 pertsona bizi dira pobrezia-aren atalasetik behera

Aipatutako guztiak aurrerapauso garrantzitsuak izan arren, orain-

>>> 170 pertsona baino gehiago arduratuko dira herriz herri sinadurak biltzeaz. Eibarren astelehenean hasiko dira.

Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai





Zazpi urte eta gero, oraindik ere ehundik gora pentsiodun elkartzan dira astero-astero astelehenetan Untzagan egiten diren kontzentrazioetan, pentsio duin eta publikoak eskatzeko. SILBIA HERNANDEZA

gutxienez 1.034 eurokoak izatea bermatzen duen akordioa, alegia”. Apirilaren 24ra arteko epea ezarri diete sinadurak biltzeko, eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendutik dei egin diete Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan erroldatutako 18 urtetik gorako pertsona guztiei.

Pentsioak osatzeko euskal sistema Espainiako Estatuan, SMIA deritzon lanbide arteko gutxieneko diru sarreraren indizea hileko 1.134 euroan ezarri zen 2024an. Horra heltzen ez diren 60 urtetik gora dituzten pentsiodunentzat sistema bat sortzea proposatu du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, SMIRA ailegatzeko osagarri gisa. Bestela esanda, “pentsioak osatzeko euskal sistema” izenarekin deitzen duten formula. Era berean, planteatu duten pentsioen osagarria litzatekeen sistema horrek genero-arrakala apaltzen ere lagunduko

>>> Gizarte osoaren babesa eskatu dute, gizarte osoari, tartean gazteei, eragiten dietelako pentsioen auziak

>>> Zazpi urte hauetan aurrerapauso garrantzitsuak egin arren, kalera irtetzen jarraituko dute, eskatzen duten guztia lortu arte

lukeela nabarmendu dute. Pentsiodunek diotenez, genero-arrakala %30ekoa baino gehiagokoa da: “Izan ere, emakumea tradizionalki lan munduan diskriminatuta egonenez, zaintza lan pagatu eta baloratu gabeetan lanean, pentsio apalak jasotzen dituzte behin erretiro adinera iristean. Gure eskakizun

honekin, aldarrikapen sozial hori konponbide justuago batera bidean ipiniko genuke”.

Gauzak horrela, Debabarreneko herritar guztiak biharko mobilizazioan parte hartzera deitu nahi dituzte, atzetik datozen etorkizuna jokoan dagoela azpimarratuta.

“Tratu txarrak ematen dituenen ezin da aita ona izan”

BLANCA TULLEUDA • Aktibista indarkeria matxistaren kontrako mugimenduetan



Indarkeria bikarioa eta genero-indarkeria instituzionalari buruz hitz egingo du Blanca Tulleudak urtarrilaren 24an Ipurua Merkatu Plazan. Blanca "Libres de Violencia Vicaria" eta "CEPAMA" elkarteetako kidea da. Instagram sare sozialean ezaguna da, gai horien inguruan egiten duten dibulgazio eta kontzientziazio lanengatik. Indarkeria bikarioa genero-indarkeria mota bat da eta, bere bitartez, indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak objektu gisa erabiltzen dira euren amei tratu txarrak emateko eta mina eragiteko. Blancak genero-indarkeria jasan zuen ezkontuda egon zen bitartean, eta gaur egun ere indarkeria bikarioa eta instituzionala sufritzen jarraitzen du.

Blanca Tulleuda katalanak Instagramen @labirabola kontua irekitzea erabaki zuen, berak bezala genero-indarkeriaren biktima diren beste emakumeei laguntzeko eta, era berean, problematika horren gainean mundua kontzientziatzeko. Denborak aurrera egin ahala, konturatu da prozesu horrek ere lagundu diola sendatzen eta ezagutzen ez zituen baina, zoritxarrez, bere erasotzailearen erruz bizi izan zituen gauza askotaz ohartzten.

@labirabola kontuaz gain, @dibu2pia kontua ere badaukazu Instagramen. Zertarako erabiltzen dituzu? Emakume askorengana iristeko modua da. La Birabolaren bitartez ikertu, ikasi, marraztu, ilustratu eta gero irakatsi egiten dut. Beste biktima eta elkarte batzuekin harremanetan jarrita, tratu txar mota guztiak ikertzen ditut. Ikasi indarkeria matxista mota guztiak buruz: genero-indarkeria, bikarioa, gurasoen alienazio-sindromea, indarkeria instituzionala... Gero, zirriborro bat pentsatu eta lanari ekiten diot. Azkenean, ilustrazio bat lortzen dut, gai jakin bati buruzko informazio asko biltzen duena. Emakume askok euren egunerokoan bizi dutena munduari erakusteko modua da. Nire prozesuaren parte da. Oso gauza

konplexuak dira, eta modu sinplean erakutsi behar dira. Abendutik Ipuruako Merkatu Plazan martxan dago nire ilustrazioen erakusketa eta urtarrilean ere zabalik egongo da.

Laburbilduz, zertaz egiten duzu berba ilustrazioen bidez?

Indarkeria bikarioari ahotsa ematen diot, eta emakume askok erasotzailea salatzerantz animatzen direnean bizi duten indarkeria instituzionalaz hitz egiten dut. Eta azaltzen dut tratu txarrak ematen dituenen ezin dela aita ona izan. Tratu txar psikologikoa zer den ere azaltzen dut, batzuetan ez baita horretaz hainbeste hitz egiten.

Zer da indarkeria bikarioa?

Emakumezkoen kontrako indarkeria mota bat gehiago da, seme-alabak tresna moduan erabiltzen dituen. Betidanik eman da, baina orain dela 15 urte jarri zion izena Sonia Vaccaro psikologo argentinarrak. Helburua beti amari min ematea da.

Hilaren 24an hitzaldia eskainiko duzu Ipuruan. Nolako saioa prestatu duzue?

Nire interbentzioaren ondoren, Maria Bestarren "No estás loca" film laburra ikusiko dugu eta berarekin hitz egin ahal izango dugu. Lan hau leku askotan saritu dute, eta bertan tratu txar psikologikoak ikus dai-



Blanca Tulleudak, La Birabolaren bitartez, gurasoen alienazioaren sindromearen, indarkeria instituzionalaren eta ama askok jasaten duten indarkeria bikarioaren errealitatea erakusten du.



Blancaren ilustrazioak Ipurua Merkatu Plazan ikus daitezke. Eta urtarrilaren 24an emango du hitzaldia bertan.

tezke. Oso ohituta gaude tratatu txar fisikoen irudiak ikustera, baina inoiz ez zaio heltzen horren aurreko tratatu txarrari, kaltegarriagoa eta iraunkorragoa denari, psikologikoari. Horren barruan indarkeria bikarioa nabarmentzen da, oso ezezaguna baita eta uste duguna baino ohikoagoa. Klase ertain altuko bikote baten harremanean oinarritzen da; izan ere, badirudi horrelako tratatu txarrak gizarte-klase baxuagoetan bakarrik gertatzen direla.

Zuk zeuk ondo dakizu indarkeria matxista zer den. Azaldu dezakezu zer pasatu zitzaizun?

Bost seme-alabaren ama naiz. Ekonomialaria eta informatikaria, 20 urte baino gehiago eman ditut sektore pribatuan lanean, eta baita Bigarren Hezkuntzako irakasle bezala. 2016an nire buruaz beste egiten saiatu nintzen, irtenbiderik ikusten ez nuelako. 2019an dibortziatu egin nintzen, nire seme-alaben aitak eragindako indarkeria-zikloa hautsi nahian, baina indarkeria areagotu baino ez zen egin. Indarkeria sexuala, psikologikoa, ekonomikoa eta bikarioa salatu nituen, baina artxibatu egin zen. Dibortzio lasaia izango zela

“Indarkeria bikarioa betidanik eman den indarkeria mota bat da, baina orain dela hamabost urte ipini zion izena Sonia Vaccarok”

uste nuen, baina guztiz kontrakoa gertatu zen: kalbarioa izan zen. Urte eta erdi baino gehiagoz errekurritu zen, eta frogarik ez zegoenez, artxibatu egin zen, lekukotza ematera deitu ere egin gabe. Gainera pandemia hasi zen, denbora gutxi neraman autonomo moduan, ezin nuen lanik egin... Mendeku gisa, familiako epaitegi zibilen bidez nire seme-alaba txikiengandik banandu ninduen, pandemiaren ondorioz hilabeteak zeramatatzelako nigandik aparte. Pentsio ezinezkoak ordaintzera behartu ninduten, nire soldata baino zenbateko handiagoekin, bere posizio



Hainbat elkarte eta erakunde feministek elkarretaratzeak egin zituzten martitzenean Estatu osoan Juana Rivas eta bere semeak laguntzen ari den "Plataforma de apoyo a Juana Rivas y sus hijos" babesteko. Eibarren ere mobilizatu zen jendea.

ekonomiko diruduna eta bere jabetzako enpresa edo higiezinak baloratu gabe. Bera oso ondo aholkatuta zegoen, eta bazekien zer egiten zuen.

Eta azkenean nahi zuena lortu zuen...

Salaketan eta ondorengo judizializazioaren estrategia prozesal bat taxutuz, etengabeko tratu txarrak, mehatxuak eta jazarpen digitala egiten jarraitu du ni re eta nire familiaren aurka, agintariak ahaldunduta eta nire seme-alaben bitartez. Bi urte baino gehiagoz nire seme-alabetako batzuk ikustea edo eurekin komunikatzea eragotzi zidan. Psikologiako eta abokatutzako profesionalen laguntzarekin SAP faltsu bat jarri ziguten, eta Estatuko erakundeei edo profesionalen elkargoei egindako kekek ez digute ezertarako balio izan. Gaur egun modu penalean salatuta nago ez ordaintzeagatik. Isuna eta kartzela eskatzen ditu bere mendekua betetzeko.

Estatuko beste leku batzuetan bezala, martitzenean Eibarren elkarretaratzea egin zen Juana Rivas eta bere semeei babesa adierazteko.

Hainbeste haurrek eta amek bizi dituzten egoeren aurrean, Danielek eta Juanak besteak beste, uste dugu herriak ezin duela hainbeste sufrimendurik onartu, ezta babesik gabeko haurtzarorik onartu, indarkeria honek haur eta ama hauen bizitzetan eta gizarte osoan eragiten duen inpaktu konponezinagaitik. Alferrik da

“ Benetako justizia eskatzen dugu, kasu gehiegitan emakumeak eta euren haurrak babesik gabe uzten dituen sistema baten aurrean ”

genero-indarkeriari buruzko munduko araugintza-sistamarik aurreratuenaz izatea, aplikatzeko erantzukizun handiena dutenek aplikatzen ez badute, epaile batzuen kasuan bezala. Horren aurrean, benetako justizia eskatzen dugu, kasu gehiegitan emakumeak eta haien haurrak babesik gabe uzten dituen sistema baten aurrean. Adibidez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Indarkeriaren aurkako Estatuko Behatokiak emandako datuetako bat: aurrreko bi urteetan %12,75ean baino ez zen ezarri "tratu txarrak ematen dituen aitari" bisita-erregimena eteteko neurri zibila (legez, 2021az geroztik, arau orokorra izan behar du), eta %0,59an bakarrik hartu ziren adingabea babesteko neurriak, haren arrisku edo kalteren bat saihesteko. Legea aplikatzea eskatzen dugu. Benetako justizia eskatzen dugu, kasu gehiegitan emakumeak eta euren haurrak babesik gabe uzten dituen sistema baten aurrean.



Imanol Ituiñok magia-ikuskizuna eskainiko du urtarrileko azkeneko egunean Coliseo antzokian

Urteroko ohiturari jarraituz, magia-ikuskizuna antolatu du ...eta kitto!-k urtarrilaren 31rako, barixakua. Gure Zirkuko Imanol Ituiño magoak eskainiko du ikuskizuna, 18:30etik aurrera Coliseo antzokian. Sarrera doakoa izango da, baina aldeaz aurretik gonbidapenak jaso behar-

ko dira ...eta kitto!-ren egoitzan. Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familiek lehentasuna izango dute gonbidapenak jasotzeko orduan, baina hilaren 27tik aurrera edozein pasa ahalko da euskara elkartetik (Urkizu 11 solairuartea) doako sarrerak jasotzera.



Arantxa Urretabizkaia izan da Harixa Emoten urtarrileko saioan

“Bidean ikasia” liburuarekin etorri da Eibarrera Arantxa Urretabizkaia idazlea euskarazko irakurketa-klubean parte hartzera. Liburu honetan 1993tik 2016ra arte Hondarribian bizi izan zen alardearen inguruko gatazka azaltzen du egileak. 2017an Euskadi Literatura Saria jaso zuen, euskarazko saiakera kategorian.



Pizza-tailerra gaur familia berbalagunentzat

Ikasturteko bigarren pizza-tailerra antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, oraingoan Gurasoak Berbetan egitasmoko familientzat. Guztira 20 lagunek jardungo dute, 10 helduk eta 10 umek, Ortutik Ahora elkarteko Sergioren esanetara pizza osasuntsuak egiten.

Barixakuak Jolasian ekimenak urte berriari ekingo dio gaur

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimena herriko auzoetara itzuliko da datozen asteotan. Gaur izango da lehenengo Untzagan, harmailen aldean, 17:00etatik 18:00etara. Begiraleen laguntzarekin jolas dibertigarriak antolatuko dira, doan, etxeko txikienentzat. Hurrengo barixakuan Torrekuako parkeak hartuko ditu jolasak eta urtarrileko azkeneko egunean, berriz, Urkizukoak.



Ipurua eta Unbeko udal atezainek greba egingo dute sei egunetan

Eguazten eguerdian, ELA sindikatuak deituta, herriko bi kirolguneetako langileek elkarretaratzea egin zuten Untzagan, udaletxe parean. ‘Lana eta bizitza uztartzea eskubidea da!’ leloa zuen pankartaren atzean elkartu ziren langileak eta azken urteotan bizitzako egoera salatzeaz gain, “negoziazioa eta esandako aldarrikapenak bere egin ditzala” eskatzen diote Udalari.

BIDEOA



Urtarrilaren 18, 19, 20, 24, 25 eta 26an grebara joko dute Ipurua eta Unbe kirolguneetako udal atezainek. Eguazten goizeko elkarretaratzean adierazi zutenenez, Udalarekin egindako negoziazioek ez dute emaitzarik eman eta, ondorioz, erabaki hori hartu dute. Gainera, “ez bada konpontzen, urtarrilaren 31tik aurrera greba mugagabea izango da”, langileen berbetan.

Eibarko Udalak kudeatzen dituen Unbe eta Ipurua kiroldegiko atezainak udal langileak dira eta harreraz gain lan administratiboak egiten dituzte. ELA sindikatuaren ustez, urteak daramatzate modu prekarioan lan egiten: “Langile gehienak emakumeak dira eta bai soldatari dagokionez bai aurten ezarri dieten egutegia kontuan hartuta, diskriminazioak ari dira jasaten beste udal langileekin konparatuz. Egiten duten lanak behar lukeen soldataren azpitik daude”.

Sindikatuak azaltzen duenez, egutegiari dagokionez, 60 egunetik go-

rako ordaindu gabeko disonibilitatea ezarri diete aurten. “Horrek lana eta bizitza bateragarria izatea oztopatzen du”, euren ustez.

Langileen salaketak

Udalarekin izandako negoziazioak ez ditu langileen eskaerak asetu eta horregatik joko dute grebara. Pablo Garmendia ELA sindikatuko ordezkariak azaldu bezala, “eskaerak aspalditik datoz eta eztabaidak amaitezinak izan dira, langileei kontziliazioa zailtzen dieten egutegiak planteatu zaizkielako. Azkenean, Udalak egutegi bat inposatu du, atxikipenekin eta langile bakoitzari urteko 60-70 egunetan 07:30etik 22:30erainoko disonibilitatea eskatuz”.

Garmendiarentzat oso garrantzitsua da azpimarratzea, baita ere, “soldata diskriminazioa dagoela. Horrela onartu ziguten alkatetzan. Udal berean, postu berdinean dagoen jendeak soldata-maila altuagoa du. Unbeko eta Ipuruko atezainek 6. maila dute Udalhitzen barruan eta



Herriko kirolgune bietako langileak eguaztenean irten ziren kalera euren egoera salatzeko. SILBIA HERNANDEZ

beste udal atezain batzuek 7. maila, eginkizun berdinak edo eskakizun-maila baxuagokoak eginez. Izan ere, kirolgune hauetako atezainek administrazio lanak ere egiten dituzte eta beste atezainek ez”.

Kontratazioetan ere fokua jarzen du Garmendiak. “Kontratazio batzuek kontratazio egonkor batetik urrun daude. Kontratu prekarioak dira. Adibidez, langile bati bi hilabeteko kontratua egin zaio”.

Langileek eguaztenean aipatu bezala, “gure lana eta bizimodua kolokan daude. Guk eskainitako egutegia ez dute onartu, egutegia inposatu egin digute eta horrela hasi gara lanean. Lan asko egiten dugu, dagokiguna baino gehiago, baina hori ez da kontutan hartzen”.

Negoiazioa eta aldarrikapenak onartzea

Garmendiak azaldu zuenez, “astelehenean ez ziguten ezer eztabaidatu, langileek arrazoia zutela onartzen zen. Udalak bi erantzun eman zizkigun. Batetik, amore eman edo

egoera hau zuzenduko balute, antzeko egoeran dauden Udaleko beste kolektibo batzuek kexa horietara gehituko lirakeela. Marka da gero erantzun hori ematea. Eta bestetik, honek guztiak lanpostuen balorazioa egitea eskatzen duela, eta hori egia da, administrazio publikoan ezin delako arintasun handiz maila bateko edo besteko lana eman, baina erantzun horrekin esaten digute ebazpena emateko hilabete batzuk itxaron beharko ditugula. Hau da, hau gaizki dagoela eta arrazoia dugula, baina tokatzen denean konponduko dutela”. Hori guztia aintzat hartuta, langileek ez dute baztertzen Udala auzitara eramateko aukera.

Langileek Udalari negoziazioa eskatzen diete eta esandako aldarrikapenak bere egin ditzala. “Kalkulatzeko zerbitzu publikoa eman ahal izateko langileen diskriminazio eta prekaritatea albo batera utzi eta lan baldintza duinak eta berdintasunean oinarritutakoak bermatu ditzan borrokan jarraituko dute”, diote ELA sindikatutik.

Urtarrilaren 18, 19, 20, 24, 25 eta 26an egingo dute greba eta, egoera konpontzen ez bada, greba iraunkorra izango da 31etik aurrera

Pablo Garmendia ELA sindikatuko ordezkariak adierazi duenez, ez dute baztertzen Udala auzitara eramateko aukera



Maiden Castillo eibartarra Realaren organigramara

Bere ibilbidea Eibartarrak taldean hasi zuen Maiden Castillok, Valentzia aldean 23 urte egin eta gero, Realera etorriko da bertako emakumezkoen futboleko arduragabak hartzeko. Gure herriak eman duen futbolari garrantzitsua izan da Castillo eta Japonian ere jokatu zuen Levantera joan aurretik. Valentziako taldearekin hainbat Liga irabazi zituen eta, jokalaria izateaz gain, ondoren entrenatzaile, koordinatzaile eta zuzendaritzako kide lanak egin izan ditu. Selektzioan ere ibilbide luzea egin zuen.



Sarrerak eta irteerak SD Eibarko lehenengo bi taldeetan

Jokalari berriak etortzeko, beste batzuk irten egin behar izan dute aurrekoei tartea lagatzeko. Hilabete hau baliatu behar dute klubek, orain arte izandako emaitzak hobetzeko asmoz, taldeak indartzeko. Horrela, Hypermotion Ligako Joseba Etxeberriaren taldeak dagoeneko Ivan Gil eta Javi Martinez fitxatu ditu, eta Slavy, Fuzato eta Hashimoto hirukoteak taldea laga du. F Ligako Yerai Martinen taldean, bestalde, Mariana Cerro heldu da eta Leire Peñak, alderantziz, eibartarrekin zuen kontratua eten du.

Fitxaketei dagokienez, Ivan Gil UD Las Palmasetik dator, lagata, denboraldi amaiera arte; eta Osasunatik datorren Javi Martinezek 2027ra arteko kontratua sinatu du. Ivan Gil erdilaria aurretik Andorran jokatu zuen azken denboraldietan, eta Javi Martinez erdilaria Albaceten eta Huescan ibilitakoa da. Athletic-etik datorren Mariana Cerro erdilaria, bestalde, denboraldi amaierara artekoa sinatu du: aurreko denboraldian 29 par-



Ivan Gil eta Javi Martinez fitxaketak.

tidu jokatu bazituen Athletic-ekin, oraingoan askoz ere gutxiagotan aritu da.

Irteeren arloari erreparatuz, Slavy aurrelaria Villarreal B-ra joan da, lagata, denboraldia amaitu arte; Daniel Fuzato atezaina kontratua eten eta Brasilgo Vasco de Gamara joan da; eta gauza bera egin du Kento Hashimoto, FC Tokyora traspasatutakoak. Emakumezkoen taldean, bestalde, uztailean hona iritsi zen Leire Peña madrildarrak kontratua eteteko akordioa sinatu du.

Areto-futboleko Eibartarrak sailkapeneko erdialdean finkatu da

Sortu zenetik bigarren denboraldia jokatzeko duen honetan, Eibartarrak

areto-futboleko taldea lehiaketari neurria hartzen joan da eta, une



honetan, justu erdian dugu probintziako 3. Mailako sailkapenean. Azken jardunaldian bosna berdindu zuen Eguzkiren pistan, eta talde biek berdinduta jarraitzen dute bosgarren eta seigarren postuetan. Hamar partidutik, eibartarrek bost irabazi dituzte, lau galdu eta azken hori berdindu; hori bai, jaso baino 13 gol gehiago sartu dituzte.





Mek Eibar Eskubaloia: jaitsieratik ia libre batzuk, goiko borrokan besteak

Ohorezko Zilarrezko Mailan jokatzen duen emakumezkoen lehen taldeak atzean laga ditu Sinfin Santander eta Berango Urduliz eta, une honetan behintzat, badirudi ez duela zailtasun handirik izango mailari eusteko. Azken jardunaldian, esaterako, 21era berdindu



zuen goiko postuetan dagoen Zaragoza La Jotarekin. 1. Nazional Mailan jokatzen duen gizonezkoen lehen taldea, bestalde, hirugarren da sailkapenean, Anaitasuna eta Contazara Zaragozaren atzetik. Domekan, gainera, aragoiarrak bisitari izango ditu Ipuruan, sailkapena asko argitu dezakeen partiduan.

Senior mailako bigarren taldeei begira, Euskadiko Ligara igoberria den emakumezkoena azkena da sailkapenean, eta Lurraldeko 1. Mailan jokatzen duen gizonezkoena goialdean dugu, bosgarren, azken jardunaldian Egia Koskori 30-37 irabazi ondoren; taldeak sei partidu irabazi ditu, lau galdu eta bestea berdindu.



Harrobiari gainbegiratu egin da, jubeniletako Euskadiko Ligan jokatzen duten bi taldeen egoera desberdina da: mutilen taldea erdialdean dago, lau neurketa irabazi eta beste hainbeste galduta; nesken taldeak, ordea, oraindik ez daki zer den garaile izatea.

Txirrindulari Elkarteak zehaztu ditu denboraldirako lasterketak

Zapatuan Portalean egin ziren Eibarko Txirrindulari Elkarteako ohiko eta ezohiko batzarrak eta, bertan onartu ziren erabakien artean, orain arte presidente karguan egon den Angel Lopezek beste legegintzaldi baterako jarraitzearena hartu zen. Horrez gain, urteko kuota 5 eurotan igotzea erabaki zen eta bazkideei jakinarazi zitzaizen zikloturista lizentziak ateratzeko aukera dutela.

2025eko egutegiari dagokionez, hauek dira bost probetako datak: martxoaren 2an junior mailako Udaberri Sariaren 47. edizioa jokatuko da, apirilaren 27an kadete mailako Eibarko Txirrindulari Elkarteako Sariaren 8. edizioa, maiatzaren 11n elite eta 23 urtetik azpikoien Valenciaga Memorialaren 54. edizioa, ekainaren 15ean jubenil mailako San Juan Sari Nagusiaren 89. edizioan eta, azkenik, urriaren



UCIko emakumezkoen proba udaberritik udazkenera pasatu dute, urriaren 5ean jokatzeko.

5ean UCIko emakumezkoen Eibarko Sari Nagusiaren 7. edizioa. Aipatutako daten inguruan, azpimarratzekoa da azken proba hori ohiko sasoz aldatuko dela aurrean, udaberritik udazkenera pasatuta. Lasterketetatik kanpo, urtero egiten diren beste hiru ekitaldik

ere bere tokia izango dute egitarauan: otsailaren 19an Udaberri Kontzertuaren 16. edizioa egingo da Coliseon, irailaren 28an Pedal edo Bizikletaren Egunaren 20. edizioa jokatuko da eta, azkenik, azaroaren 22an Txistorraren Egunaren 21. edizioa egingo dute.



Artesanos Juantxo Eibar Saskibaloiko lehen taldea goiko postuetako lehia

Azken asteburuan Antigua Luberriekin Ipuruan galduta ere, Gipuzkoako 2. Mailan jokatzen duen Eibar Saskibaloiko lehen taldea sailkapeneko gorenean dugu, irabazi zion taldea, Aldapeta Maria eta Easo Basket Aizkorriekin berdinduta. Orain arte zazpi partidu irabazi eta hiru galdu ditu eta asteburu honetan Astigarragako Mundarro

azken sailkatuari egingo dio bisita. 3. Mailan jokatzen duen gizonezkoen bigarren taldea, bestalde, sailkapeneko behe aldean dugu, hirugarren azkenetik hasita. Eta emakumezkoen 2. Mailan jokatzen duen Eibar Saskibaloia sailkapenaren erdialdean aurkitzen da, irabazi baino galdutako partidu gehiagorekin.



Emakumezkoen lehen taldeak Ohorezko Mailara igotzeko itxaropenak ditu.



Emakumezkoen taldea lidergoan, gizonezkoena azken postuan

Errugbian iraultza handia izan da gure herriko lehen taldeek izan dutena eta, orain dela hamarkada bateko egoerarekin alderatuta, zaila da sinestea gaur bizi dugun egoera. Eibar Rugbyko emakumezkoen lehen taldeak, goragoko maila batean izanik ere, bide ezin zuzenagoa darama denboraldi honetan eta, jokatutako bost partiduak irabazita, lider dugu 22 punturekin. 20 ditu Turia - Les Abelles bigarren sailaktuak eta 16 Olimpico de Pozuelo hirugarrenak.

Euskal Ligako 1. Mailan jokatzen duen Eibar Rugbyko lehen taldeak, bestalde, orain arte jokatutako partidu guztiak galdu ditu eta sailkapeneko azken tokian dago, bi punturekin, aurretik duen Urgozo Zornotzarengandik bi puntura. Azken jardunaldian ez zuen zorte handirik izan eta gutxigatik galdu zuen Durango Hirumet-ekin (12-10).

Euskal Ligan jokatzen du baita emakumezkoen bigarren taldeak ere, baina Arrasaterekin bat egin da; jardunaldi bakarra jokatu dute.



Aldaketa asko aurretik denboraldi zaila duten Urbateko taldeentzat

Urbateko waterpolo klubeko lehen taldeak bigarren denboraldia darama 2. Nazional Mailan eta, ia mailari eutsi eta gero, oraingoan gehiago kostatzen ari zaio aurrera egitea. Azken aldiaren emaitza hobekia lortu baditu ere, B multzoko azken postuan dugu une honetan, bakarrik hiru puntu eskuratuta. Garaipenik gabe, bi partidu berdindu

ditu, azken penaltietan garaile izanda batean eta galtzaile bestean. Bere aurretik duen Alcorcon aurkari izango du bihar Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Urbateko bigarren taldea, bestalde, bosgarren da Euskal Herriko 1. Mailan jokatzen duten sei taldeen artean. Aurreko urteetan izandako emakumezkoen talderik ez dute gaur egun.



Izena eman daiteke V. Pala Txapelketarako



Euskal Jaiko egutegiaren barruan jokatzeko den Eibarko Pala Txapelketa bosgarren edizioa biziko du martxoaren 1etik maiatzaren 25era arte. Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea eta urtarrilaren 31ra arte egin ahalko da, bikote bakoitzak 30 euro ordainduta. Partiduak zapatuetan jokatuko dira, aukera izango bada ere domekara pasatzeko. Kontakturako telefono zenbakia 666190470 da.

Malape Taberna lider futbol-zaletuan

Futbol zaletuko azken jardunaldian Adahi Etxegiri 3-1 irabazita, Malape Tabernak beste bi puntutan handitu du Garajes Garciarekiko zuen alde, azken honek BOJ-en aurka berdinketarekin konformatu behar izan baitzuen. Saillkapen nagusia, Malapek 25 puntu ditu, Garajes Garciak 21, Xania Tabernak 18, Bar Maremek 15, BOJ taldeak 14, Kalaka Buenos Airesek 12, eta atzean geratu dira Adahi Etxegi, zazpirekin, eta Limpieza Rueda eta Baserri, bostekin.

Gaur eta etzi pilota jaialdiak Astelenan

Hasiberriko Udaberri Txapelketa binakako modalitateko bigarren jardunaldian, Astelena frontoiak bost partidu hartuko ditu gaur 18:00etan abiatuko den jaialdian. Jubenilen artekoa izango da lehenengoa, ondoren infantil mailako bi neurketa jokatuko dira eta, amaitzeko, kadete mailako beste bi izango dira. Partiduak honakoak izango dira: jubeniletan, Amuategi-Azpilikueta Oñatiko bikotearen aurka; infantiletan, Saez-Oñederra Oñatiko kontra eta Colmenero-Agote Bergarakoei aurre egingez; eta kadeteetan, Amillategi-Del Rey Donostiako kontra eta Varona-Gil Azpeitiakoak aurrean duela. Domekakojaialdiak, bestalde, 17:00etatik aurrera txapelketa berako seniorren mailako bi par-



tidu hartuko ditu: Ibarra-Conde Amezketa Beloki-Gorostidiren kontra, eta Narvaiza-Agirresarobe Errenteriako Odriozola-Urmentari aurre egingez. Sarrera doan da eta pilotaz gozatzeko aukera ezin bikainagoa izango da.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Real Madrid - SD EIBAR (etzi, 12:00)

Gizonzkoen 2. Maila

SD EIBAR - Albacete (bihar, 18:30)

Gizonzkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Barbastro (bihar, 16:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Sporting de Gijon - SD EIBAR B (bihar, 15:45)

Gizonzkoen 3. Maila RFEF

Basconia - SD EIBAR C (etzi, 17:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

Anaitasuna - SD EIBAR C (bihar, 18:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Anaitasuna B (etzi, 12:30)

Soraluze - EIBARTARRAK (etzi, 16:30)

Erregionaleko 1. Maila

URKI B - Iksaberri B (bihar, 12:30)

Jubenilen Ohorezko Maila

Antiguoko - SD EIBAR (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga

Betoño - SD EIBAR B (etzi, 17:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Xania Taberna - Baserri (bihar, 09:00)
- Kalaka B. Aires - Gar. Garcia (bihar, 10:30)
- Bar Marem - BOJ (etzi, 09:00)
- Limpieza Rueda - Adahi Etxegi (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonzkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Altza Terraza (bihar, 19:00)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Bera Bera (bihar, 18:30)

Gizonzkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Conta Zaragoza (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Malape Elgoibar (etzi, 10:00)

Gizonzkoen Lurraldeko Liga

Ordizia S. XX - MEK EIBAR B (bihar, 17:30)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Liga

EIBAR - Jabatas Mostoles (etzi, 12:00)

Gizonzkoen Euskal Ligako 1. Maila

Getxo Etorkezuna - EIBAR (bihar, 16:30)

Emakumezkoen Euskal Ligako 1. Maila

Gaztedi - ARRASATE/EIBAR (etzi, 10:30)

SASKIBALOIA

Gizonzkoen Gipuzkoako 2. Maila

Astigarragako - ART. JUANTXO (gaur, 20:00)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Erroibide Irun - EIBAR (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonzkoen 2. Nazional Maila

URBAT - Ciudad Alcorcon (bihar, 20:15)

Gizonzkoen Euskal Herriko 1. Maila

URBAT B - WP Navarra (etzi, 13:30)



JON MIKEL MUJIKA

Gosearen harriak

Azkar ahazten ditugu ezbeharrak gizakiok. Eta are azkarrago norbere azalean sufritu ez ditugunean. Nahikoa dira pare bat belaunaldi, gure ahaideek pairatu edo eragindako sufrikarioak gure memoriatik ezabatzeko. Nahikoa dira urte batzuk, gure asabek emandako aholkuei entzungor egin eta berriro ere erabaki okerrak hartzeko. Eta hala, gizakion gaitasun oinarrizkoenetako bat berresten dugu: bi aldiz harri berean estropezu egitea.

Gure ahanzturarako joera hori arintzeko sortu zituzten “Gosearen harriak”. XV. mende inguruan, Europa erdialdeko hainbat ibai bazterretan idatziz apainduriko harriak jartzen hasi ziren, uraren mailaren markatzaile gisan. Idorte handi bat heltzen zenean, mezudun harri hauek ibaiaren ibilguan kokatzen zituzten, lehorrak urari irabazitako tokian. Era horretan, urte batzuren buruan uraren maila berriro jaisten zenean, belaunaldi berriak aurrekoek jarritako harrietako mezuak irakurriko zituen. Eta jakingo zuten gosearekin lotutako zailtasunak pasa beharko zituztela.

Elba ibaian dago gosearen harri ezagunenetako bat, “Wenn du mich siehst, dann weine” dio bere inskripzioak: “Ikusten banauzu, negar egin”.

Gaur egun, ez dugu harririk behar eskuin muturrak XX. mendean eragin zituen triskantzak gogoratzeko. Eskura ditugu hezkuntza publiko, liburu, hemeroteka eta abarrak. Baina munduko herrialde garatueta azken hauteskundeen emaitzak ikusita zalantzak sortzen zaizkit. Nago, jende asko, harri batekin kaskarrean jota ere, ez dela ohartuko sortzen ari diren munstroaz.

“Munduko herrialde garatueta azken hauteskundeen emaitzak ikusita zalantzak sortzen zaizkit. Jende asko, harri batekin kaskarrean jota ere, ez da ohartuko sortzen ari diren munstroaz”



Jür du izena Jürgen Landa musikariaren proiektu pertsonalak. EITB

Etxeko talentuak eztanda egingo du datozen egunotan Coliseon

Urtarrilaren 20an ospatzen da San Sebastian eguna, baina probintziako hiriburuan danbor hotsak entzun baino lehen, bezperan, 19an, Usartza txistulari taldeak danborradako doinuekin kontzertua eskainiko du Coliseon, 12:30ean.

Urtero antolatu izan du sansebastianak ospatzeko kontzertu berezi hau eta beste musikari batzuen laguntzarekin eskaintzen du ikuskizuna. Hala nola, Eibar-ko danborradako kideek eta metal boskotea osatzen duten Unai Cabanzón, Lander Mesonero, Iñaki Orbegozo, Markel Uribarren eta Jesus Rioja musikariek ere hartuko dute parte bertan.

Honakoa izango da eskainiko duten egitaraua: Diana (R. Sarriegi), Idiarena (R. Sarriegi), Sociedad

Alperrak (Miguel Gonzalez), Polka de Tambores (R. Sarriegi), Mutriku Herria (Zezilio Pagoaga), Retreta (R. Sarriegi), Pantxika (Txomin Mujika), Hau dek hau (Jose Azarola), Katuska (Pablo Sorozabal), Comparsa de Caballeria de Viejas (R. Sarriegi), Debako Martxa (Pablo Sorozabal), Donostiako Martxa (R. Sarriegi) eta Tatiago (R. Sarriegi).

Pantailatik oholtzara

Orain dela urte batzuk, Jürgen Landa musikariak Jür proiektua jarri zuen martxan. Harrezkero, zenbait abesti kaleratu ditu eta azken aldian ETB-ko 'Ztanda' saioan ikusi eta entzun ahal izan dugu. Orain, hilaren 24an, herrikideen aurrean aritzeko aukera izango du, Coliseon, 19:00etan.

Ez da inongo sekretua herrian musikari bikainak ditugula eta Coliseo antzokia horren lekuko izango da datozen egunotan. Domeka honetan, Usartza txistulari taldeak, beste musikari batzuek lagunduta, danborradako doinuak ekarriko ditu. Eta hilaren 24an, orain dela gutxi arte ETB-ko 'Ztanda' saioan ikusi dugun Jürgen Landa igoko da oholtza gainera.

Jürgen oso pozik eta irrikaz dago kontzertuaren aurretik. "Coliseon jotzea oso berezia da. Udala nirekin harremanetan jarri zenean demaseko ilusioa egin zidan. Bertan aritzea sari moduko bat da, lanean irmo eta ilusioz jarduteagatik lortutako saria", bere berbetan.

Musikari eibartarrak Julen Gutierrez (gitarra), Alex Gonzalez (gitarra), Miguel Beraza (baxua), Gaizka Uranga (perkusioa) eta Ivan Requejo (pianoa) izango ditulagun oholtza gainean. "Gustoko ditudan abestiak eta 'Ztanda' saioan abestu ditudan beste batzuk kantatuko ditut, eta gonbidatuak ere egongo dira, jende berezia, beti nire alboan egon dena eta baita ezagutu berri dudana ere. Kontzertu dinamikoa izango da. Ikusteko polita", azaldu digu.

Jür proiektua "oso bizirik" da goela esan digu Jürgenek. "Ztanda"-ren harira mezu asko jaso ditut, bai onak bai kritika konstruktiboak ere, eta horrek proiektuari bultzada eman dio. Beraz, lanean nabil ea kontzertu eta abesti gehiago datozen", diosku artista eibartarrak.



BTN Fest jaialdia hartuko du bihar Eibarko Gaztetxeak

Lehen edizioak izan zuen arrakasta ikusita, bigarren ez egingo da BTN Fest jaialdia Eibarko Gaztetxean. Bihar, 17:30etik aurrera, bederatzi taldek joko dute bata bestearen atzetik: Bisturi, Death from Above, Mutilated Judge, Dystopia Omen, Opposer, Inanicion, Issuna, Kiratxa eta Hellwatch taldeek osatzen dute aurten-go kartela. Bakoitzak bere estiloa izan arren, orohar doinu metalero indartsuak izango dira nagusi bihar. Kontzertu guztietarako sarrerak 8 euro balio du. Horrez gain, jaialdirako kamisetak egin dituzte, eta nahi duenak erosteko aukera izango du, aldez aurretik eskatuta (eskaera egiteko zuzenean idatzi beharko da mezua, nahitaez). Kamisetak 14 euro balio du, baina eskaintza berezia dago sarrera eta kamiseta erosi nahi dutenentzat (biak 18 euroren truke).



Anton Hurtadoren pintura erakusketa Portalean ikusgai

Gaurtik aurrera ikus daiteke “*Ibilian jarraitzea*”, Anton Hurtadoren pintura erakusketa Portalean (erakusketa aretoan). Estilo abstraktua duten margolanak otsailaren 16ra arte egongo dira bertan ikusgai, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



Euskarazko antzezlanaren bihar Tanntakaren eskutik

Bihar 19:00etan taularatuko du Tanntaka Teatroa konpainiak *Emakume baten borroka eta metamorfosia* Coliseo antzokian. Eneko Sagardoi eta Vito Rogado aktoreak arituko dira Fernando Bernuesek zuzendutako euskarazko antzezlan horretan. Edouard Louisek idatzia, ama batek gizon burua eta gorputza duen mundu batean biziko duen eraldaketa heroikoari buruzko proiektu autobiografiko anbiziotsua da bihar aurkeztuko duten lana: “Ustekabean amaren gaztaroko autoerretatu bat aurkitu ondoren, Edouard Louisek gogora ekarriko du baztertuta, menderatuta eta are gizonetzkoek eragindako indarkeriak makurtuta bizi den eta 45 urterekin matxinatu, ihes egin eta pixkanaka bere askatasuna eraikiko duen emakume baten irudia. Gizarte patriarkalak, familiak eta baita semeak ere suntsitutako emakume baten metamorfosia”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Kike Biguriren ikuskizuna urtarrilaren 30ean Hatorren

Kike Biguri aktore beasaindarrak bakarrik keta komikoa egingo du, urtarrilaren 30ean, 19:30ean, Untzagan dagoen Hator tabernan. Saioa ikusteko sarrerak 3 euro balio du eta Buenos Aires eta Kalaka tabernetan erosi daiteke.



Los Deltonos taldeak zabalduko du Musika Kluba

Datorren domekan Coliseon 19:00etatik aurrera eskainiko den kontzertuarekin ekingo zaio 2025eko Musika Klubako programazioari. Rock & Blues musika jotzen duen Los Deltonos Kantabriako taldeak “Mueve” bere 15. diskoa aurkezteko aprobeztatuko du.

Estatuko rock'n'roll talde handienetakoa den Los Deltonos taldeak 90. hamarkadaren hasieran iraultza handia eragin zuen estatuko bluesaren ikuspegi geldi eta mimetikoan, eta egiazko erreferentzia dira orduz geroztik. Hirukote indartsu eta bizia, musikari zailduak eta bikain konbinatuak, sendotasunez eta segurtasun handiz interpretatzen dituzte Rover-en errepertorioa eta ongi aukeratutako bertsiu aukera. Blues, rhythm and blues eta rock gitarra jotzaile ospetsua da Hendrik Rover eta bere estiloa zabalten joan da bere eraginak bezalaxe, folk, flatpicking, country eta Honky Tonk gehituta. Sarrera 10 eurotan dago salgai, 7 eurotan Coliseoaren laguna txartelarekin.



Sanblasak egiten ikasteko saioa Arrate Kultur Elkarte

San Blas opilen ikastaroa eskainiko dute Arrate Kultur Elkarte urtarrilaren 25ean, 11:00etan. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 638 284 912 telefonora deitu (5 euro, bazkideentzat doan).




Pagatxaren zine-forum feministaren saioak bueltan

Pagatxa Emakumeen Elkartearen eskutik, datorren astean itzuliko dira zine-forum feministaren saioak. Martitzenean izango da lehena, 18:30ean Andretxean, eta aukeratu duten filma Ridley Scott-ek zuzendutako *Thelma&Louise* da. Film honetako protagonista nagusiak, bestalde, Susan Sarandon eta Geena Davis dira. Pelikula ikusi eta gero, horri buruzko solasaldia egingo da, Yanire Sagredo dinamizatzaile berriak gidatuta. Sarrera doan da, joan nahi duen edozeinentzat.

Irigoiener argazki erakusketa

Jose Luis Irigoien Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideak erakusketa zabaldu du Portaleko tabernan. *Baltiko* izenburuko argazki-bilduma hilaren amaierara arte egongo da ikusteko moduan, taberna zabalik dagoen edozein momentutan.



Gabonetako Marrazki Lehiaketa egingo da Galiziako Etxean

Galiziako Kultur Etxeak antolatuta, domekan XVII. Umeen Gabonetako Marrazki Lehiaketa egingo dute, 16:30etik aurrera. 2 eta 12 urte bitarteko haurrek hartu dezakete parte, Gabonen inguruko marrazkiekin. Lehiaketan parte hartzen duten guztientzat txokolatea banatuko dute gero.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	5			2	7
		5	1		8
1			8	7	
			2		5
3	9			4	1
6		8			
		3	5		9
4		1		6	
5	7			6	

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		4	6	1	3	
2			7	1	8	
				2		5
3	8				1	
	2	5			6	7
	1				5	4
5			9			
	6	1		4		3
	4	2	7	5		


**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8



AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK



LABIRINTOA

Urtarrilak 17 - 23

ZAPATUA 18

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30

Astelena Haur Parkea.

Astelena frontoia.

PENTSIODUNAK

12:00 Eskualde mailako manifestazioa, pentsio duinen alde, zazpi urteko borroka ospatzeko.

14:00 Herri bazkaria (15 euro), Errebal Plaza (barruko lokaletan).



BISITA GIDATUA

17:00 Eibarko Armagintza-aren Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko, euskaraz (18:30ean gazteleraz). Doan. Aurretik izena eman behar da 943 708446 telefono zenbakian edo museoa@eibar.eus helbidean. Armagintza-aren Museoa.

MUSIKA

17:30 BTN Fest. Bisturi, Death from Above, Mutilated Judge, Dystopia Omen, Opposer, Inanicion, Issuna, Kiratxa eta Hellwatch taldeen kontzertua. 8 euro. Eibarko Gaztetxea.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

ANTZERKIA

19:00 "Emakume baten borroka eta metamorfosia" (Tanttaka Teatroa). Euskaraz. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



DOMEKA 19

DANBORRADA KONTZERTUA

12:30 Usartza Txistulari Taldearen eskutik. Eibarko Danborradako kideen eta metal boskotearen partaidetzarekin. Doan. Coliseo.



MARRAZKI LEHIAKETA

16:30 XVII. Umeen Gabonetako Marrazki Lehiaketa (2-12 urte). Txokolate-jana parte-hartzaile guztientzat. As Burgas Galiziako Etxea.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA KLUBA

19:00 Los Deltonos Kantabriako taldearen kontzertua, "Mueve" bere 15. diskoa aurkezteko. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



EGUENA 23

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaienez. Untzaga jubilatutako etxea.

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 17tik otsailaren 16ra:

- "Ibilian jarraitzea" **ANTON HURTADO**ren pintura erakusketa. (Portalea).

Martxoaren 30era arte: - "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintza-aren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

- **ANTZERKIA**

17an (BARIXAKUA)

19:00 Herriko Antzokia "Miñan" / **Artedrama**



DEBA

- **IDI PROBAK**

17an (BARIXAKUA)

20:00 Euskal Jolas frontoia

Lau idi-parekin

- **ELORRIAGAKO JAIK**

17tik 20ra arte

ERMUA

- **BLUES KONTZERTUA**

18an (ZAPATUA)

20:00 Lobiano kulturgunea

The Fake Cousins



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **18an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 19:30 (Antzokia)

“Babygirl”
KOMEDIA



2024/AEB/114'
Zuzendaria: Halina Reijn
Protagonista: Nicole Kidman,
Harris Dickinson, Ant. Banderas
Drama/Erotikoa

1 ARETOA

- **20an:** 19:30

“Vivir el momento”
DRAMA



2024/Erresuma Batua/107'
Zuzendaria: John Crowley
Protagonista: Andrew Garfield,
Florence Pugh, Adam James
Erromantzea/Gaixotasuna

2 ARETOA

- **18an:** 22:00
- **19an:** 20:00
- **20an:** 19:30

“La semilla de la higuera”
DRAMA




2024/Alemania/168'
Zuzendaria: Moham. Rasoulof
Aktoreak: Soheila Golestani,
Setareh Maleki, Missagh Zareh
Intriga/Familia/Gizartea

2 ARETOA

- **18an:** 17:00
- **19an:** 17:00

“El juicio del perro”
ABENTURAZKOA



2024/Frantzia/85'
Zuzendaria: Laetitia Dosch
Aktoreak: Laetitia Dosch,
François Damiens, J.Pascal Zadi
Komedia/Txakurrak/Abokatua

<p>FUNEUSKADI Funeraria Mugica</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funeraria</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO FUNERARIO EIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Oraola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xizillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leiza · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Mireia Ormaetxea Luis

10. URTEURRENA
2015/01/14

MAITE ZAITUGU
- ZURE KUADRILLA -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorion pillo bat, **JUNE**, bixar zure lehelengoko urte-txua beteko dozu eta, potxola. Patxo potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **AINHOA**, atzo urtiak bete zenduazten eta. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ION**, hurrengo eguenian urtiak beteko dozuz eta! Ondo ondo ospatu! Musu haundi bat laguneren partez.



Zorionak, **XIKER!!!** Astelehenian 10 urte bete zenduazten eta!! Musuak eta besarkada erraldoi bat etxekuen partez.



Zorionak, **IERA!!** Martitzenian 5 urte bete zenduazten eta. Musu eta besarkada bat, txapelduna, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KEPA**, hillaren 13an 4 urte bete zenduazten eta. Segi alaixa eta zoriontxua izaten. Musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EIDEN** (hillaren 20xan) eta **LAIA** (21ian), 8 urte egingo dozuez eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANDER**, atzo 29 urte egin zenduazten eta. Famelixa eta lagunekin ondo ospatuko zendualakuan, segi holan!

Joseba Zubiria Biain

2025/01/12

MILA ESKER, bihotz-bihotzez, guregana gerturatu eta jaso dugun maitasunagatik.

- JOXEBAREN FAMILIA -

Eibar-Oñati, 2025eko urtarrilak 16

Juan Mari Etxaniz Eizagirre

2024/12/21

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

- EIBARKO ZURE KUADRILLA -

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Jardiñeta 5-ean. 657779664.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. 617571210. Amaia.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste lanetarako. 603334249.
- Neska eskaintzen da erizain-laguntzaile bezala edo kamarrera jarduteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuan ere. Interna. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuan ere. Interna. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da, nagusiak zaintzeko (soziosanitario laguntzaile ziurtagiria) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. 687163826.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanak egiteko eta osasun arloan jarduteko. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 632355103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642431753.

4.2. Langile bila

- Laguntzailea behar dut bulego lanetan laguntzeko. luen-go41@gmail.com
- Sukalde lanak egingo dituen esperientziadun pertsona behar da elkarte gastronomiko baterako. 620888320. Alex.
- Dekoratzaila behar da Eibarko Urrategi-Interiorismon. 629437192.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Taberna baterako bigarren eskuko hotz-kutxa (izozkailua/ arkoia) behar da. 629526032.
- Aulki bihur daitekeen ibiltaria eta barruko opari aldagarria saltzen ditut. 150 euro. 649105442. Elena.

6.2. Eman

- Koltxoia daukat, Dormideo etxekoa (1,35x1,90). Egoera onean. 680145248.

6.4. Bestelakoak

- Telazko poltsa galdu nuen Bossa tabernan. Balio sentimental du. Bertan laga mende. 652716135.



osasun gida

Medikuntza Estetikoa



abontza
clinica estetica

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Auzpejia gaitzetan
- Botoxak

Kirurgia
- Betsakak, belanak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behe 943 206 044

Okulistak



Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

PLA. 20413

Pasa Bania 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Psikologoak



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA

HAUR, NERABE ETA HELDUENAKO ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Tonibio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Moutragon Lili
GOKOZ EIA ARRATSALDEZ

Urkiizu, 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023


ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



PODOLOGOIA

Maidor
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776

Egogain Berri

- Eibar -



AZKEN 2 ETXEBIZITZAK

Bisitatu etxebizitza pilotua!



INFORMA ZAITEZ

Foru Pasealekua 1, 20005 Donostia (Gipuzkoa)

T. 943 543 543

www.egogainberri.com


AMENABAR


grupe eibar
S.A. IMMOBILIARIA